

KANALAK:

• Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Dakigunez, kanalen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.

Orduan, kanalen artean, hiru kanal mota bereiz ditzakegu, baina kasu honetan, komunikazio kanalean barneratuko gara:

Enpresen eta bezeroen arteko komunikaziorako aukeratutako bitartekoak kontuan hartu behar dira erakundearen kulturaren, xedearen eta balioen arabera, eta, gainera, garrantzi handiagoa eman behar zaie salmenta-indize handiagoa eta, ondorioz, irabazi handiagoa lortzeko.

Gure kasuan, webgune bat eratzea eta hortik informazioa hedatzea erabaki dugu, **homelinenlagun.com** deiturikoa. Webgunean horretan, gai honetan interesaturik dauden pertsonentzako informazio dohakoa eta anitza igoko dugu. Lehenenik, portadan enpresaren logoa, izena eta eskaintzen dugun zerbitzuaren deskribapen laburra agertuko dira. Portadaren beheko aldean, mugikor finkoaren zenbakia eta lokalaren helbidea jarriko dugu, horrela ere, edozein zalantza izatekotan, gurekin komunika daitezten.

Bestalde, behin webgunearen barnean, interes handiagoa duten pertsonentzat, era zakonagoan azalduko agertuko da gure enpresarekin ekintza motak. Informazio hori eskuratzeko, "informazio extra" esaten duen karratu batean klikatu beharko du bezeroak.

Webgunean aurrera jarraituz, leiho desberdinak agertuko dira. Leiho batean, gure langileen informazioa (izaera, gustuko ekintzak eta argazkia) eta haien tituluak eta dokumentazio profesionala atzikiturik egongo da. Beste batean, eskaintzen ditugun zainketa eta harreman modu desberdinak agertuko dira portada giza. Bertan sartzean, mota bakoitzaren arabera, beste leiho batzuk egongo dira. Bakoitzean, zainketa mota bakoitza azalduko egongo da, beraz, pertsona bakoitza beharrezkoa duena aukeratuko du, informazio guztia barneratu ondoren. Zerbitzu mota bakoitzean, gure ordutegiak eta kostuak jarriko ditugu. Bertan ere, izena emateko, ordutegia aukeratzeko eta ordaindu beharrezkoa ordaintzeko aukera egongo da.

Izena ematerakoan eta zerbitzua ordaintzerakoan, webgune honetan eskatuko dugun informazioa hurrengoak izango da:

1. Haurren zainketa normalaren zerbitzua aukeratzekotan bezeroak idatzi beharko duen informazioa:
 - Gurasoen informazioa:
 - Izen-abizenak
 - Telefono zenbakia
 - Helbidea
 - Helbide elektronikoa

- Haurraren informazioa:
 - Izen-abizenak
 - Adina
 - Gustuko ekintzak

- 2. Haurren zainketa aparteko egoeretan aukeratuz gero, aurreko ereduaren informazio berdina eskatuko dugu.

- 3. Pertsona batek bere zaletasunak konpartitzeko pertsona bat aurkitzeko aukera izan nahi izatekotan, hurrengo informazio mota eskatuko dugu:
 - Pertsona horren informazio pertsonala:
 - Izen-abizenak
 - Telefono zenbakia
 - Helbidea
 - Helbide elektronikoa
 - Egitea gustatuko litzaiokeen ekintza
 - Adina
 - Bere izaeraren deskribapena

- 4. Aiton-amonek zaintzari baten zerbitzua aukeratzekotan bezeroak idatzi beharko duen informazioa:
 - Pertsona horren informazio pertsonala:
 - Izen-abizenak
 - Telefono zenbakia
 - Helbidea
 - Helbide elektronikoa
 - Adina